



Gilen Txintxurreta Goitia
Arkitektoa

Jarrera bat

Bizi dugun garaiaren erritmo zoroak apenas ematen du betarik gel-ditu, patxadaz pentsatu, eta ideiak antolatze-ko. Denborak aurrera etengabe, errutinaren morroiak bihurtu gara, eta errutina horrek ortzi-muga lauso eta ilun baterantz garamatzala dirudi, ihesa edo alternati- ba apenas ikusten delarik.

“Basilika” ekimenaren baitan, Kepa Matxain eta Jon Urzelaik “Sakoneta” ataleko lehenengo saioari “Moderno” izena eman zioten. Gure garaiaren erradiografia bat egin zuten bertan: etorkizuna imajinatze gaitasuna kamustuta duen gizarte baten irudia marraztu zuten, errealismo kapitalis- ta guztiz barneratuta duena, eta, ha- ren mugetatik irteteko gaitasunik ga- be, sorkuntza-antzutasun batean erori dena. Hala, moda (estiloa) eta *re- make*-a (kopia) dira gure aroan artea- ren helduleku bakarrak.

Antzinako abangoardia iraultzaile- en nostalgia sumatzen da, mundua oraindik egiteke zegoeneko garai haietara itzuli nahi bat. Pentsamendu nostalgiko horrek gizarte osoa zipriz- tintzen du, eta orainaren konplexuta- sunari bizkar eman nahian, mezu az- kar, simple eta erradikalek arrakasta izaten dute, aukera erreakzionarioei, nagusiki eskuinekoei, baina baita ez- kertiarei ere, haizea emanez.

Egun bizi dugun kapitalismo beran- tiar gogaikarriaz nazkatuta, zilegi da pentsatzea balizko iraultza ba- tek haren akabera ekarriko duela, baina horren orde bere baitan duen humanismo apurra ezabatzea gerta liteke. Arkitektura modernoa arkitektura heroikoa zen, iraultzailea, mundu zahar ustelaren errautsetatik gizarte berri garbi eta osasuntsu bat sortzea bilatzen zuena; baina horreta- rako mundu zaharra suntsitu beharra zegoen. 30eko hamarkadan guda in-

tektuala irabazi ostean, 70ekora ar- te ia oztoporik gabe jardun zuen hi- riak berregiten. Auzo zaharrak eraitsi eta haien lekuan blokeko paisaia monotonoak eraiki ziren, bai Ekialde komunistan, eta bai Mendebalde ka- pitalistan ere. Batean zein bestean, ondorioa ez zen gizartearen hobetzea izan, dibertsitatearen zokoratzea eta hiriaren desagertzea baizik.

1961ean Jane Jacobs-ek «Live and Death of great American Cities» li- buru bikainean hiri tradizionalaren balio zibilizatzaile eta humaniza- tzaileen defentsa sutsua egin zuen, ustez zientifikoa zen hirigintza mo- dernoren erruz desagertzen zihoan hiriaren defentsa. Geroago, postmo- dernitatea izan zen modernitate “he- roikoak” sortutako triskantzari buelta ematen ahalegindu zena, eta arkitek- turaren bitartez hiri zaharren ezau- garriak, konplexutasuna, nahasketa tipologiko eta soziala... berreskura-

tzen saiatu zen. Arrakasta intelektua- la bai, baina pragmatikoa urria izan zen, eta 10 urte baino gutxiagoan, postmodernitateak berea egin zuen. Ideietan baino irudietan (estiloa) zen- tratu zen, antzinako Erromako edo Er- di Aroko arkitekturaren imitazio egu- neratuak (kopia) eginez, indar eraldatzaile guztia galdurik, kitsch bihurtuta. Gero dekonstruktibismoa etorri zen (Zaha Hadid, Liebeskind, Ghery), eta harekin norbanakoaren gorazarrea eta kontestuaeren ukatzea: neoliberalismo arkitektonikoa.

Lehenengo artikulua dut hau GAUR8n. Arkitekturaz jardungo dut bertan, eta nire testuetan jarrera bat, postmodernitatearen jatorrizko ideie- kin lerrokatuta dagoen jarrera bat iza- ten saiatuko naiz. Kontraesan eta ña- bardura askoko idatziak izango direlakoan nago, arkitektura eta hiri- gintza zientzia baino gehiago teknika baitira, eta gauzak inoiz ez dira zuri edo beltz. Has gaitezen. •



Ilustrazioa: Gilen TXINTXURRETA GOITIA